

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
AMAIA UGALDE

Ondarroa (Bizkaia)

Hemen bai, kresala!

Turruna, kalatxoriak, euskara... entzuten dira Ondarroan. Kresala eta arraina usaintzen dira bertara heltzerakoan. Herri arrantzaleen xarma du Bizkaiko kostaldeko azken herriak, eta kontatzeko, ikusteko eta entzuteko, gauza pila.

Turruna entzutean, lehorrekoea denak ez du ulertuko zer pasatzen den, baina arrantzale herrian badakite barkua portura sartu dela, eta arraina deskargatzen hasiko direla laster. Turrun edo sirena hots bat bada, atunarekin datoz arrantzaleak. Bitan jotzen badute, txitxarroa edo berdela dator, eta hiru turrun hotsekin, antxoa sartuko da. Gehiago joz gero, sua edo ezbeharren bat gertatu da. Bi entzun, eta portura hurbildu gara.

Berdela deskargatzen ari dira; ugari harrapatu dute gaurkoan. Ondarroan gaude, Gipuzkoarekin mugan dagoen Bizkaiko arrantzale herrian.

Erdi Aroko herrien lilura du Ondarroak. Alde zaharreko kale aldapatsu estuek eta balkoi koloretsuek herri arrantzalearen xarma ematen diote. Hiru kale ditu alde zaharrak: Kale Handia, Txomin Agirre Kalea edo Goiko kalea –bertan jaio zen Txomin Agirre idazlea– eta Ipar kalea. Onda-

arroako historian sute asko egon bada ere, alde zaharreko egitura mantentzen da hiru kaleotan. Eraikin zaharren artean, Likona eta Etxe Handia dorre ikusgarriak daude.

Herriko eraikin kuriosoena eliza da. Haitz baten gainean eraiki zuten Andra Mari eliza eta gotiko berantiar estilokoa da. Apaingarri asko ditu, eta bitxiak “kortxeleko mamuak” dira. Elizaren kortxelean, goiko aldean, eskultura batzuk daude. Erdi Aroko

Artibai itsasoratzen den lekuan dago eraikita Ondarroa. Argazkiaren ezkerreko aldean, XVIII. mendeko Zubi Zaharra ikus daiteke.





Goian eta ezkerrean, Alde Zaharra. Eskuman, Andra Mari eliza bitxia, gotiko berantiar estilokoa. Behean, arrantzaleak lanean.



pertsonaiak irudikatzen dituzte: zalduna, soldadua, inudea, erregina... Herri ipuinak dienez, Leokadi izeneko neskatxa, garai bateko sinesmenei kasu egin barik, eliza inguratzen duen pasealekuari (korretari) hiru bira eman ten saiatu zen. Azken bira eman aurretik, baina, harri bihurtu zen. Orain, kortxeleko mamuen artean ei dago. Diotenez, umek okerkeriaren bat eginez gero, mamuek hartu eta harri bihur ditzakete.

Leokadi gajoa harri bihurtu zen korretaren zati baten azpian pilotalekua dago. Korreta leku ona da herri-

batzuk, zenbakiak barik, izen bereziak jarri zituzten paretako marketan: lehenengoa Patala da, eta azkena, Santoña Ameriketa, urrunegi joandako pilotarentzat.

Pasealeku ederren herria

Erdigunetik irten, eta Arrigorri hondartzara joan gaitezke pasioan. Horretarako, Artibai ibaia pasa behar da. "Plaiko Zubixe" izan da tradizioz hondartzarako zubia. Burdinazkoa da eta erditik zabaltzen da barkuak pasatzeko. 1970 inguruan etxolaxoa zeukan, eta hondartzara joan nahi

zuenak ordaindu egin behar izaten zuen. Halako batean, etxola sutan agertu zen, herriko norbaitek erreta. Koplak eta guzti atera zituzten gertaeraren inguruan.

Itsas Aurre zubia, Santiago Calatravarena, herrian kontraste handiena egiten duen eraikina da. Zaharrragoa da, izenak berak dienez, Zubi Zaharra. XIV. mendetik zegoen zubi bat leku horretan, zurezkoa. Oraingoa, harritzkoa, XVIII. mendekoa da, erromaniko estilokoa. Pasa den mendean eraberritu zuten, uholdeek ia guztiz sunsitzean. Alboan Kofradia Zaharra dauka, ikusgarria.

Arrigorritik aurrera jarraituta, Mutrikuko Saturrarán hondartzarako bidea dago. Itsasoaz gozatzeko pasealeku polita da. Herriko hiru nasak ere bai. Herria ikusteko leku egokienetako bat Antiguako Ama da. Goiko kalean gora eginda helduko gara, eta handik, Saturrarango haitzak, hondartzak eta kostaldearen zati handi bat ikusten da. Duda barik, kresaldun jendearen herria da Ondarroa. ■

20, 30, 35, 40... eta 50 urtera arteko hipotekak. Tasazio-balioaren %100eraino eta abalik gabe.

zeure erara
bbk
hipotekak

etxetik botako zaituzte